

# AHOLKU SAREAren MEMORIA

«Atzerritartasunaren arloko euskal  
zerbitzu juridikoa»

2015



## AURKIBIDEA

### **1.- AHOLKU SAREAREN JATORRIA eta XEDEA**

**2.- JARDUERA PRINTZPIOAK:** arreta; erabiltzaileen profila; egituraketa, barneko/kanpoko sarea eta egituratzaile soziala

### **3.- ZERBITZUAREN EGITURAKETA: ESKU HARTU DUTEN ERAGILEAK**

#### **3.1.- Gizarte-erakundeak**

#### **3.2.- Abokatuen Elkargoak**

#### **3.3.- Biltzen -Integratioko eta Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua-**

#### **3.4.- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila – Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza-**

### **4.- EKIMENAK 2015**

### **5.- EBALUAZIOA 2015**

### **6.- 2016rako ILDO NAGUSIAK**

### **7.- ONDORIOAK**



## 1.- AHOLKU SAREAREN JATORRIA eta XEDEA

Arreta juridikoko zerbitzu honek «Heldu» izeneko aurreko zerbitzuaren lekukoa hartu du, hura itxi ostean; 2010eko bigarren seihilekoan ekin zion ibilbideari eta 2011. urte hasieran eman zituen lehen urratsak.

Aholku Sareak, Eusko Jaurlaritzako zerbitzua den aldetik, **lehen hurbilketa batean oinarritzen du helburua**; atzerriartasunaren arloan aholkularitza juridikoa ematen die bai atzeritarrei, bai bertakoei, baita administrazio publikoko langileei eta gizarteratze-prozesuetan lan egiten duten hirugarren sektoreko gizarte-erakundeei ere.

Horrekin guztiarekin erregularizazioa erraztu eta EAEko atzeritarren gaineratutako irregulartasuna saihestu nahi da, familian bizitzeko eskubideaz baliatzeko erraztasuna ematen saiatuz; izan ere, familia-loturak edukitzeak atzeritarren sarrera, egoitza eta lanerako baimena lortzeko aukera ekar dezake zenbaitetan, familian bizitzea ahalbidetuz.

Gizakia euskal politika publikoa informatzen duen gune eta printzipio gisa hartzeak, Euskadiko etorkinen kolektiboa euskal gizarte integratzailearen parte gisa hartzera eramaten du, kultura eta ekonomia aberastasunari dagokionez balio izugarria duen giza kapitala adieraziz.

## 2.- Aholku Sarearen jarduera-printzipioak

Hauek dira Aholku Sarearen barne -nahiz kanpo- funtzionamendua arautzen duten jarduera-printzipioak:

→ Ekintza hainbat esku-hartze mailatan banatzen duen zerbitzua; zuzenekoa edo aurrez aurrekoa eta zeharkakoa edo telematikoak.

→ Erabiltzaile mota desberdinei erantzuna ematera bideratua.

→ Esku-hartze maila ezberdinei erantzuna emateko, profila kontuan hartuta hautatutako eta partaidetzazko egitura zabala osatzen duten hainbat eragiletan oinarrituta egituratua: zuzenekoa eta zeharkakoa edo bigarren mailakoa.

Xede horretarako, prestatutako sistema hiru ardatz nagusitan oinarritzen da, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak koordinatuta: Gizarte-erakundeak, Abokatuen Elkargoak eta Biltzen:

- **Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza**, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Saila
- **Biltzen** - Integrazioko eta Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua
- Itunpeko **zazpi gizarte-erakunde** (Cear-Euskadi; Gurutze Gorria-Euskadi, Bilboko Elizbarrutiko Caritas, Kosmopolis, SOS-Arrazakeria Gipuzkoa, LAIZ-CCOO eta Adiskidetuak)
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako **Abokatuen** hiru **Elkargoak**

→ **Lurralde-estaldura zabala**: aurrez aurreko aholkularitza ematen duten gizarte-erakundeen **lurralde-banaketa** hau da:

4.- ENTIDADES TERCER SECTOR INTEGRADAS EN EL SERVICIO JURÍDICO VASCO EN MATERIA DE EXTRANJERÍA		
ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
CRUZ ROJA 945132630	CRUZ ROJA 944230359	CRUZ ROJA 943327795
CEAR 945266805	CITE 944243424	ADISKIDETUAK 943639690
	KOSMOPOLIS 688605551	SOS-ARRAZAKERIA 943245627
	CARITAS	



→ **Sarean** egiten da lan: Aholku Sarea hainbat eragileren artean egituratuta dago eta horiek ikuspegi bakarra partekatzen dute, bai diskurtsoari, bai erreferentziari dagokionez.

→**Barne- eta kanpo-koordinazioan. "Barneko" moduan jarduteko adostasunean islatzen da, nahiz eta eragile bakoitzak "katedra" edo ikuspegi askatasuna duen lanaren egunerokoan aurre egin beharreko kasu praktikoetan. Kanpora begira, erreferentziazkoak diren bestelako zerbitzu edo erakunde publikoekiko koordinazioan eta lankidetzan egiten da aurrera: Harresiak Apurtuz, Ertzaintza, Emakunde, Lanbide...**

→Erantzukizun publikoko zenbait alorren **egituraketa alor sozialeko** erreferentziazko profesionalen **bidez**: Aholku Sareak eskaintzen duen aurrez aurreko arreta gizarte-erakundeetan eta Abokatuen Elkargoetan oinarritzen da nagusiki. Ildo horretatik, erakundeok elkarren artean sendotzen dira, eta Administrazio Publikoak, kasu honetan Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzaren bitartez, immigranteen bizitza normalizatzerako bideratutako politikak sustatzen ditu.

→Herritar guztiei zuzendutako **gailu publikoa** den aldetik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntza publikoaren mendeko zerbitzua da, integratzeko xede argia duena atzerritarren egoera administratiboa normalizatuz.

→Zerbitzu-kontzientzia,osatzen duten eragileen artean **dinamika osagarri eta elkarren mendeko** gisa, herritarrei bideratua integratzeko xede argiarekin.

→Feedbackean oinarrituta: Aholku Sarea osatzen duten eragileek horrek jatorrian dituen politika publikoak berak hornitu ere egiten dituen gailu edo sistema osatzen dute, jarraibide orokorrei buruzko informazioa eguneratuz eta Euskadiko migrazio-fenomenoaren egoerari buruzko diagnosi eguneratu eta zehatzagoa egiteko elementu gisa baliatuz.

### **3.- ZERBITZUAREN EGITURAKETA, HORI OSATZEN DUTEN ERAGILEEN ARABERA**

#### **3.1 Gizarte-erakundeak**

## ADISKIDETUAK

Adiskidetuak taldea **soldatapeko langileek eta boluntarioek** osatzen dute; eta eginkizunak elkarri lotuta daude. Aholkulari batek, abokatu batek eta kultur bitartekari batek osatutako taldeak garatzen du aholkularitza juridikoa, kontuan izanik, betiere, lana talde osoak egiten duela. Hau da, eginkizun desberdinak edozein teknikarik bete ditzake, abokatuaren lana izan ezik.

ADISKIDETUAK elkartetik egindako lanari esker, elkartearen eta immigrazioaren alorrean lanean diharduten gizarte-erakundeen arteko harremana estua izan da, baita gizarte-zerbitzu eta gizarte-baliabideekin ere.

Adiskidetuak taldea honako hauek osatzen dute:

- **Abokatuak:** Idoia Ikardo
- **Aholkularitza:** Rocío Calderón
- **Administrazioa, kontabilitatea eta laguntza:** Karla Zavala

2015ean **1.327** erabiltzaile artatu dira guztira (**854 emakumezko eta 473 gizonezko**).

**40** herrialdetatik baino gehiagotatik etorri dira pertsonak, gehienak neskameak, etxeko zerbitzuen alorreko eskaera handia dela-eta.

Etortzen diren pertsonak hainbat nazionalitatetakoak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Nikaragua, Honduras, Kolonbia, Maroko eta Nigeria**.

2015ean administrazioko **3 profesional** artatu dira.

Aurten **10 kasu desbideratu** dira Gipuzkoako Abokatuen Elkargora.

## LAIZ-CCOO

Proiektuaren exekuzioan **bi abokatuk** hartzen dute parte.

- **Abokatua:** Paloma Merino
- **Abokatua:** Mayra Colado

Horien lana kultura-artekotasunetik, testuinguruan kokatzen eta kultura desberdinen errespetutik bideratuta dago eta horien eginkizunen artean daude informatzea, orientazio eta aholkularitza administratibo juridikoa ematea, prestakuntza eta lan-munduan txertatzea.

2015ean **2.256** erabiltzaile artatu dira guztira (**954 emakumezko eta 1.302 gizonezko**).

Erabiltzaile gehienak Bilbotik eta Bilbo ingurutik etorri dira edo bertan bizi dira, beste eskualde batzuetatik ere etorri diren arren, neurri txikiagoan bada ere.

Etortzen diren pertsonen hainbat nazionalitatetakoak izaten jarraitzen badute ere, hala ere herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Bolivia, Maroko, Kolonbia, Paraguay, Honduras, Senegal, eta abar.**

2015ean administrazioko **258 profesional** artatu dira.

Aurten **31 kasu desbideratu** dira Bizkaiko Abokatuen Elkargora.

## KOSMOPOLIS

Boluntarioek eta profesionalak osatzen dute elkarte eta horien helburu nagusia migrazio-jatorri ezberdina duten komunitateen arteko bizikidetza eta kultura-artekotasun harremanak erraztea da (gizarteratze-prozesuak bultzatuz).

Kospomoliseko taldea honako hauek osatzen dute:

- **Aholkularitza juridikoa / abokatuak:** Miguel Angel Viñas
- **Lehen arreta:** Josu Erdozain

2015ean **1.197** erabiltzaile artatu dira guztira (**792 emakumezko eta 405 gizonezko**).

2015ean administrazioko **115 profesional** artatu dira.

Aurten **35 kasu desbideratu** dira Bizkaiko Abokatuen Elkargora.

**40** herrialdeetatik baino gehiagotatik etorri dira pertsonak. Etortzen diren pertsonak hainbat nazionalitateetakoak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Bolivia, Nikaragua, Honduras, Senegal eta Peru.**

## GURUTZE GORRIA - EUSKADI

Boluntarioek eta profesionalak, eta atzerritar eta bertako jatorria dutenek, osatzen dute elkarte eta horien helburu nagusia migrazio-jatorri eta tokiko jatorri ezberdina duten komunitateen arteko bizikidetza eta kultura-artekotasun harremanak erraztea da.



Zerbitzu hori bultzatze aldera, Gurutze Gorria - Euskadik gaien **adituak diren 7 abokatu** ditu eta zerbitzuak ondo funtzionatzen laguntzen duen boluntarioen taldea.

Gurutze Gorriko taldea honako hauek osatzen dute:

- Abokatua: **Lucía García (Araba)**
- Abokatua: **Montserrat Masot (Araba)**
- Abokatua: **Raquel Pacho (Araba)**
- Abokatua: **Iñigo Portilla (Bizkaia)**
- Abokatua: **Artzai Pina (Bizkaia)**
- Abokatua: **Monica de Francisco (Gipuzkoa)**
- Abokatua: **Idoia Labayen (Gipuzkoa) (María Álvarezek Idoia ordezkatu du 2015 bajaran egon den bitartean)**

2015ean **2.271** erabilzaile artatu dira guztira (**971 emakumezko eta 1.300 gizonezko**)

2014an administrazioko **627 profesional** artatu dira.

Aurten **133 kasu desbideratu** dira Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Abokatuen Elkargoetara.

**70** herrialdetatik baino gehiagotatik etorri dira pertsonak. Etortzen diren pertsonak hainbat nazionalitatetakoak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Maroko, Senegal, Bolivia, Nigeria et abar**

## CEAR-EUSKADI

Immigranteak eta bertakoak daude elkarte osatzen duten profesionalen eta boluntarioen artean.

Kasu honetan, zerbitzua Araban eskaintzen da astean bi egunetan. Atzerriartasunaren alorrean ibilbide luzea duen abokatuak artatzen du egunero.

Honako hauek osatzen dute Cear taldea:

- **Koordinatzailea:** Javier Canibel
- **Aholkularitza // Abokatu:** Miguel Angel Viñas
- **Aholkularitza // Abokatu:** Suniva Martinez

2015ean, **711** erabiltzaile artatu dira guztira (**282 emakumezko eta 429 gizonezko**).

2015ean administrazioko **7 profesional** artatu dira.

Aurten **35 kasu desbideratu** dira Arabako Abokatuen Elkargora.

**50** herrialdeetatik baino gehiagotatik etorri dira pertsonak. Etortzen diren pertsonak hainbat nazionalitateetakoak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Maroko, Nigeria, Sahara, Pakistan, Dominikar Errepublika eta Kamerun.**

## CARITAS

Bilboko Caritaseko zerbitzu juridikoa 1990. urteaz geroztik eskaintzen da, Hurbil abokatuen bulegoarekin sinatutako zerbitzuen errentamendu kontratuaren bidez. Taldea honetan parte hartzen dute:

- **Abokatu:** **Genma Escapa**, zerbitzu juridikoan 19 urteko esperientzia duen abokatu

- **Abokatua: Juan Carlos Pablo**, zerbitzu juridikoan 16 urteko esperientzia duen abokatua

2015ean **343** erabiltzaile artatu dira guztira (**173 emakumezko eta 170 gizonezko**).

2015ean administrazioko **76 profesional** artatu dira.

Aurten **12 kasu desbideratu** dira Bizkaiko Abokatuen Elkargora.

Guztira, **49 nazionalitatetako** pertsonak bertaratu dira. Etortzen diren pertsonen hainbat nazionalitatetakoak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Maroko, Nigeria, Senegal, Bolivia eta Kolonia**.

## **SOS ARRAZAKERIA GIPUZKOA**

1993. urtean jaiotako elkarte. Immigranteak eta bertakoak daude elkarte osatzen duten profesionalen (11 pertsona -8 emakumezko eta 3 gizonezko-) eta boluntarioen (112 pertsona -78 emakumezko eta 34 gizonezko-) artean.

Lan ildo nagusiak -Programak- hurrengoak dira:

- Sentsibilizazio programa
- Prestakuntza eta dokumentatze programa
- Salaketa programa
- Arreta eta aholkularitza programa
- Boluntarioritza sustatzeko programa

Kasu honetan, arreta eta aholkularitza zerbitzua Gipuzkoan eskaintzen da astean lau egunetan (Errenteria, Zarautz, Beasain eta Arrasaten). Atzerriartasunaren alorrean ibilbide luzea duen abokatuak artatzen du egunero.

Honako hauek osatzen dute SOS Arrazakeria taldea:

- **Koordinatzailea:** Mikel Mazkiaran
- **Aholkularitza // Abokatu:** Ane Iturbe

2015ean, **303 erabiltzaile** eta **15 profesional** artatu dira.

Aurten **2 kasu desbideratu** dira Gipuzkoako Abokatuen Elkargora.

**35** herrialdeetatik baino gehiagotatik etorri dira pertsonak. Etortzen diren pertsonak hainbat nazionalitateak izaten jarraitzen badute ere, herrialde hauetakoak gainerako herrialdeetakoak baino askoz ere ugariagoak dira: **Maroko, Pakistan, Nikaragua, Senegal eta Sahara.**

### **3.2.- Abokatuen Elkargoak**

#### **Sarrera**

Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Abokatuen Elkargoak zuzenbide publikoko eta irabazi-asmorik gabeko korporazioak dira eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko abokatuen kolektiboek osatzen dituzte. Elkargo horiek alde batetik, funtzio publikoa betetzen dute, hau da, Konstituzioan adierazitako Zuzenbidearen Estatu sozial eta demokratikoa babesten dute eta giza eskubideak indartu eta babesten dituzte, eta Justizia Administrazioaren funtzionamendua ere sustatzen eta hobetzen ahalegintzen dira; bestalde, funtzio soziala betetzen dute, herritarren interesen alde ahalik eta zerbitzu onena eskaintzen dutelako, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak defendatzen dituztelako eta doako laguntza-zerbitzua hobetzean lan egiten dutelako etengabe.

Euskal zerbitzu juridiko honen bitartez honako hau bilatzen da: kalteberatasun-egoeran egonik bere dokumentazioa izapidetu behar duen biztanleria etorkinari gizartean integratzeko laguntza-sistema ezartzea; izan ere, kasuen konplexutasunagatik, zehaztasunagatik eta eskatzen duten denboragatik eta etorkinen baliabide ekonomikorik ezagatik gaur egun laguntza hori, gizarte-erakundeekin batera, abokatuen elkargoek eskain dezakete, atzerriartasun-gaietan espezializatuta dauden abokatuen bitartez, hain zuzen ere.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetan, 2015. urtean Abokatuen Elkargoek eskainitako zerbitzuak hauek izan dira:

- Egindako desbideratzeen kopurua: **298**
- Desbideratzeen kopurua, **kontsulta** moduan: **26**
- Desbideratzeen kopurua, **izapidetze** moduan: **45**
- Desbideratzeen kopurua, **errekurtso** moduan: **227**
- Desbideratzeen kopurua, **izapidetze + errekurtso** moduan: **0**

Zehazki, **Bizkaian 157, Gipuzkoan 76 eta Araban 65 zerbitzu kudeatu dira.**

### **SAJE txanden osaketa eta horietan sartzeko baldintzak**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoetako atzerritartasuneko txanda espezializatua 400, gutxi gora-behera, abokatuz osatuta dago gaur egun.

Abokatuaren hautaketa atzerritartasun-txanda osatzen dutenen artean egingo da edo, bestela, Elkargoetako barne-prozeduren arabera atzerritartasun-gaietan behar adinako ezagutza egiaztatzen dutenen artean, betiere, Abokatuen Elkargoek alde aurretik ezarritako jardun-protokoloari jarraiki.

Zehatz esanda:

#### **Araba:**

SAJEko parte izateko, atzerritartasun gaietan espezifikoa den ofiziozko txandakoa izan behar da (bestela ezingo litzateke letradu jarduketa-unitatea bermatu fase administratibo eta judizialean) eta txanda horretan sartzeko baldintzak hauek dira:

- 3 urtez elkargoko kide izatea, jardunean.
- Praktika juridikoko eskola egina izatea.
- Atzerritartasun gaian urteko prestakuntza-ikastaro espezifikoa egina izatea.

### **Bizkaia:**

Atzerritartasuneko txanda berezian sartzeko, lehenik eta behin 3 urte bete behar dira elkargoko kide gisa jardunean eta praktika juridikoko eskolako ikastaroa egin behar da. Behin hori eginda, Bizkaiko Abokatuen Elkargoak urtero antolatzen duen atzerritartasuneko hastapen ikastaroa egin behar dute eta, ondoren, egingo diren birziklapeneko atzerritartasun ikastaro aurreratuetara joatea nahitaezkoa izango da.

Horrez gain, izena eman behar da zigor eta administrazioarekiko auzien txanda berezian.

Praktika juridikoko eskolako ikastaroa egin ez bada, elkargoan 5 urtez kide izatea eskatuko da eta izena eman nahi duenari abokatu gisa jardun izana gutxienez 10 epaietan atzerritartasun gaian eta beste 10etan zigor gaian. Kasu honetan atzerritartasuneko hastapen-ikastaroa eta birziklapen-ikastaroa ere eskatuko dira.

SAJE txandan sartu ahal izateko baldintza izango da aldez aurretik atzerritartasuneko txanda berezian egotea.

### **Gipuzkoa:**

Gipuzkoako Elkargoaren kasuan, altan emanda egon behar da atzerritartasuneko txandan eta horretarako eskainitako prestakuntza-ikastarora joan behar da

Hauetara dira letraduek gara ditzaketan ekintza espezifikoak:

- **Kontsultak:**
- **Izapidetzeak**
- **Errekurtsoak**

- **Gainera**, zerbitzuak bildu dezake izapidetzearen + errekurtsoren konbinaketa bat.

Nolanahi ere, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak erabakiko du zein kasu desbideratuko diren Abokatuen Elkargoetara.

### **3.3.- Biltzen – Integrazioko eta Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua**

Immigrazio, herritartasun eta kultura arteko bizikidetzari buruzko euskal politika Biltzen baliabide teknikoaz baliatzen da euskal herritar guztien integrazioa bultzatzeko, jatorria, hizkuntza, erlijiozko kidetzapena eta abar albo batera utzita.

Era berean, kultur aniztasunaren eta bizikidetzaren kudeaketan hartzen du parte herritarren ikuspegi inklusibotik eta baita diskriminazioaren, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan ere.

Biltzen elkarteak zeharkako planteamenduaren mendean garatzen du bere jarduera, euskal gizarteko hainbat sektoretan diharduten administrazio eta eragileei lagunduz: enplegua, osasuna, etxebizitza, kultura eta abar.

Jabetza publikoko zerbitzu hori 2004. urtean sortu zen Immigrazioko lehen Euskal Planaren babesean eta 2010. urtean txertatu zen zerbitzuan alor juridikoa, eta horixe txertatu da esku hartzeko bigarren mailako eragile gisa Aholku-Sarea Zerbitzuan.

Biltzen elkarteko alor juridikotik aholkularitza-zerbitzuak garatzen dira euskal politika publikoetako ekimenen, proiektuen, zerbitzuen eta kudeaketa-sistemen definizioan, abiaraztean eta ebaluazioan, hain zuzen ere:

- Prestakuntza-planak prestatzeko aholkularitza; jardunaldi teknikoak zerbitzuko erreferentziazko alorretan.
- Euskarri, material didaktiko eta dibulgazioko materialen prestaketa atzerriartasunaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorrean.

- Atzerritartasunari buruzko informazioa eta aholkularitza juridikoa eta Aholku-Sarearen barruan espezializatutako baliabideetara desbideratzea, hau da, Abokatuen Elkargoetara eta Aholku-Sarea osatzen duten gizarte-erakundeetara.

- Atzerritartasunari buruzko informazio-saioen programaren kudeaketa, Aholku-Sarearen barnean.

- Kudeaketa eta esku-hartzea hobetzera bideratutako eta administrazio publiko, hirugarren sektore, elkarte eta abarretako profesionalei zuzendutako prestakuntza-zerbitzuak. Prestakuntza alor nagusiak hauek dira:

\*Kultura-artekotasuna eta kultura-aniztasunaren kudeaketa-ereduak

\*Immigrazioa eta atzerritartasuna

\*Aniztasunaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren kudeaketa

\*Generoa eta immigrazioa

**Aholkulari** hauek osatzen dute alor juridikoa:

- **Leire Garrastatxu (abokatua)**
- **Nuria Martínez (abokatua)**
- **Pablo Pascual (abokatua)**

BILTZENek **1.554** profesional (147 profesional -793 kontsulta-) eta partikularren (761) kontsultak erantzun ditu; **86** administrazio, erakunde publikoei eta **46** hirugarren sektoreko erakundeei erantzun die, etorkinei arreta emateko prozesuetan lagunduz

### **3.4.- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila -Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza-**



Aipatutako Zuzendaritzaren eginkizun nagusia zerbitzuaren funtzionamendua bateratzea, bultzatzea eta dinamizatzea da. Azken batean, baliabide horren funtzionamendu egokia bermatzen ahalegintzea, alderdi positiboak bultzatuz eta indartuz eta egon daitezkeen gabezien aurrean zuzenketa-mekanismoak bideratuz eta finkatuz.

#### **4.- EKIMENAK 2015**

**Barne eremuan:**

##### **1.- Laneko bilerak**

**1.- 2015.** urtean **osoko 9 bilkura** egin ziren (2015/01/16; 2015/02/13; 2015/03/06; 2015/04/16; 2015/05/15; 2015/06/12; 2015/07/27; 2015/09/24 eta 2015/12/11), **3 lurralde-bilera** (2015/10/22; 2015/10/30 eta 2015/11/30) eta **Zuzendaritza eta elkargoen arteko 3 bilera** (2015/03/05; 2015/07/24 eta 2015/10/22).

Bilera guzti gauen **gai ordena** eta **edukia** Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Web-orrian eskegita daude.

##### **2.- Prestakuntza**

**2015.** urtean prestakuntza-prozesu hauek antolatu ziren:

**A.- Immigrazioaren errealitatea Euskadin** (2015/02/13). **Gorka Morenok** eskaini zuen (Aholku-Sarearen taldeari).

**B.- Etorkinei eskainitako osasun zerbitzua** (2015/04/16). **Xabier Agirrek – Munduko Medikiak-** eskaini zuen (Aholku-Sarearen taldeari).

**D.- Nazioarteko zuzenbide pribatuari buruzko mintegia** (2015/10/21). **Juan José Alvarezek** eskaini zuen (50 laguni).

**E.- Estatuko abokatu** batek emandako mintegia (2015/12/02). **Iñaki Ferrasek** eskaini zuen (27 laguni).

F.- **Asiloari** buruzko hitzaldia (2015/12/02). **Javier Canibellek** eta **Suniva Martinezek** eskaini zuten ((Aholku-Sarearen taldeari).

### 3.- Gai teknikoen azterketa

**Bileretan, gai teknikoei buruz hausnarketa egiteari denbora gehiago eskaini zaio.**

Ilido horretatik:

- Bi bilera egin ziren, **Bizkaian, azpiordezkaritzaren solaskideekin.** Lehenengo bileran (2015/04/28), Zerbitzuaren funtzionamenduaren azalpena egin zitzaion Sagarriori; gero zenbait gai tekniko aztertu ziren. Bigarren bilera (2015/07/14), gai teknikoetan zentratu zen.
- Gipuzkoako **azpiordezkaritzaren eta Aholku-Sareko kideen arteko bilera burutu zen.** Bi zati izan zituen bilera honek. Alde batetik, Zerbitzuaren funtzionamenduaren azalpena egin zen eta, bestetik, gai tekniko ezberdinei buruz eztabaidatu zen.
- Abokatuen Elkargoak Zerbitzu Juridikoarekin duten lotura areagotzeko edota hobetzeko ahalegina egiten ari dira. Elkargo bakoitzaren errealitatea eta konpromisoa desberdina izan dela antzeman daiteke. Testuinguru horretan, 2015. urtearen amaieran, Gipuzkoako Elkargoan **Aholku-Sareko kideen eta Saje txandetako** zenbait letraduren arteko topaketarako jardunaldia garatu zen. Eraitza oso positiboa izan zen eta litekeena da 2016an ere esperientzia errepikatzea, Arabako Abokatuen Elkargoan, hain zuzen ere.
- **Arabako azpiordezkaritza.** Errotze, gizarteratzeko ahalegin eta etxebizitzaren egokitasun txostenari buruzko hausnarketa egiteko bilera burutu zen.

**4.- Txostenak.** Zerbitzuko eragileek txostenak kudeatzen dituztenekin partekatutako hausnarketa plazaratzeko testuingurua sortzeko aukera eskatzen dute. Egiteko geratuko litzateke.

## **5.- Barne lotura**

Aurrerapen nabarmenena gauzatu da.

Taldea osatzen duten pertsonen arteko harremanak indartu dira.

Horrela , Zerbitzu honek duen altxorrik preziatuena bere lan-taldea da.

Bide hau indartu nahian, bi esparru sortzeko proposamena luzatu da. Batetik, hausnarketak egiteko esparrua eta, bestetik, dokumentazioa biltzeko esparrua **-Hodei-**.

### **Kanpo eremuan:**

#### **1.- Zerbitzuaren azalpenak (2015. urtea):**

##### **A.- Harresiak Apurtuz**

**Irailaren 22an** Zerbitzuaren azalpena egin zitzaion Bizkaiko lurralde batzordeari (12 entitate).

**Azaroaren 4an** Zerbitzuaren azalpena egin zitzaion Gipuzkoako lurralde batzordeari (3 entitate).

##### **B.- Emakunde (2015/03/03)**

Zerbitzuaren funtzionamendua azaldu eta baliabideen berri eman zitzaion.

##### **D.- Segurtasun saila (2015/01/15)**

Zerbitzuaren funtzionamendua azaldu eta baliabideen berri eman zitzaion.

## **E.- Lanbide**

Biltzenen eskainitako prestakuntza-prozesuetan (lau 2015. urtean), Zerbitzuaren funtzionamendua azaldu eta baliabideen berri eman zitzaien.

## **F.- Ararteko (2015/02/24)**

Zerbitzuaren funtzionamendua azaldu eta baliabideen berri eman zitzaien.

2016. urtearen hasieran beste bilera bat egiteko konpromisoa hartu zuten partaideek.

## **G.- Munduko Jendeak (2015/04/16)**

Zerbitzuaren funtzionamendua azaldu zen, baliabideen berri eman zitzaien eta Zerbitzua zabaltzeko laguntza eskatu zitzaien.

2016. urtean beste bilera bat egiteko konpromisoa hartzen dute partaideek.

## **2.- Informazio-liburuxka bidezko hedapena (posta elektronikoko bidez).**

Zerbitzuaren funtzionamendua argitzeko eta harremanetarako erreferentziak zehazteko, informazio-liburuxka bat landu egin zen. Honen itzulpena egin zen (10 hizkuntzetan) eta 25.000 ale banatu egin ziren.

## **3.- Web-orria**

Sailaren Web-orria (Aholku-Sarearen atala) eguneratu egin da. Bertan, Zerbitzuaren funtzionamendua, informazio-liburuxkak, memoriak, bilera-aktak eta Zerbitzuaren funtzionamendua azaltzeko landutako bideoa (2014. urtea) txertatu dira.

#### **4.- Hedabideak**

Zerbitzu Juridikoaren funtzionamenduaren eta bertara sartzeko moduaren berri emateko xedearekin, 2015/05/08an, Aholku Sarea Zerbitzuko kide bat (Miguel Angel Viñas/Cear) elkarrizketatu zuten Kandela Irratian (20 minutu).

Familia Politika eta Komunitate Garapenerako Zuzendariak gauza bera egin zuen Irungo La Ser irratian.

#### **5.- Azpiordezkaritzekin harremana**

Aholku Sarearen eta hiru azpiordezkaritzen izenean (batez ere Bizkaiko eta Gipuzkoakoekin) dihardutenen arteko komunikazio-bideak zabaldu eta mantendu diren arren, hausnarketa sakonagoa oraindik ere egiteko dago alor horretan.

Horren harira, azpiordezkaritzekin komunikazio-bide iraunkorra zabaltzea planteatu da -urtean bi bilera- eta bide hori, besteak beste, informatzeko eta prestakuntzarako mekanismo gisa erabiltzea.

Azkenik, ezin dugu alde batera utzi Aholku-Sarea osatzen duten erakundeetako askok beren jarduera alorrari dagozkien azpiordezkaritzekin elkarrizketa-mekanismo propioak dituztela.

#### **6.- Hutsuneak Gipuzkoan**

2014. urte amaierako ebaluazioan gizarte-erakundeen estaldura juridikoarekin lotutako hutsunerik handienetako bat Gipuzkoan behar adinako estaldura juridikoaren gabezia zetzala egiaztatu ahal izan zen.

Gizarte-erakundeen bidez estaldura juridikoa hobetze aldera, Gipuzkoako lurraldean handitu egin zen eskainitako zerbitzua, SOS-Arrazakeria (Gipuzkoa) erakundearen bitartez. Pertsona bat kontratatu zen. Elkarrekin Errenteria, Beasain, Zarautz eta Arrasaten egiten du arreta juridikoa.

## DATU ESTADÍSTIKOAK 2015

- **Hirugarren sektoreko erakundeek arreta emandako pertsonen kopurua: 8.408**
- **Hirugarren sektoreko erakundeek arreta emandako profesionalen kopurua: 1.101**
- **Biltzenek arreta emandako kontsulten kopurua: 1.554**
- **Hirugarren sektoreko erakundeek eskainitako informazio-saioak: 25 (438 erabiltzaile)**
- **Abokatuen elkargoetara bideratuak: 298**

### **5.- EBALUAZIOA 2015**

2015. urteari amaiera emateko, abenduan **2015.** urteari zegokion ebaluazioa egin zen **-lanaldia Izarza jatetxean-** eta bertan 2014ko aurreko ebaluazioan azpimarratutako alderdi positiboak azpimarratu ziren berriro ere. Zerbitzuaren ahultasunen artean batzuk oraindik ere jarraitzen zutela nabarmendu zen eta beste batzuk dagoeneko konponduta zeudela azpimarratu.

2015. urteko ebaluazioa hau izan zen:

**Zerbitzuaren indarguneen** artean hauek dira aipagarriak:

- 1.- Aholku-Sareak oinarri dituen irizpideei jarraiki, Sareak ondo funtzionatzen du.
- 2.- Sistemaren parte-hartze zabala duen egituran oinarritzen da.
- 3.- SAJEra deribazioa proposatu eta gero, abokatuaren izendapena oso arina da.
- 4.-Zerbitzuko agenteen barne funtzionamenduari eta autonomiari errespetua.
- 5.- Zerbitzura jotzeko dauden aukeren dibertsifikazioa.

6.- Zenbait kasutan, arretak dimentsio integralagoa hartzen du; hertsiki juridikoa (enplegua, laguntzak...) denaz haratagoko hainbat alderdi jasotzen ditu.

7.- Aholku-Sarearen lan taldearen kideen arteko harremanak indartu eta hobetu dira.

8.- Gizarte-erakundeen bitartez eskainitako arreta hobetu da (SOS arrazakeria Gipuzkoa kide berri dugu).

### **Indartu beharreko aspektuak:**

1.- Zerbitzuaren difusioa eta agerpena.

2.- Zerbitzuko agenteei zuzendutako prestakuntza.

3.- Zerbitzua sendotzea, finkapena eta iraupena lortze aldera.

4.- Espainiako Estatuan eta Europan erreferenteak diren esparru ezberdinetan parte-hartzea bultzatu behar da.

5.- Elkargoen egokitzapena indartzea Zerbitzuaren testuinguruan; hain zuzen ere, hiru Saje txandak osatzen dituztenen eta Aholku-Sareko gainerako abokatuen arteko lotura.

6.- Arreta eta koordinazioa oporraldietan hobetu behar da.

### **6.- 2016rako ILDO NAGUSIAK**

2016. urteari begira, hau da behin-behineko ibilbide-orri berrikusgarria:

**1.- Zerbitzuaren hedapenarekin jarraitzea eta solasaldi-lankidetzako markoak proposatzea:**

**1.1.- Informazio-liburuxkak**

**1.2.- Eusko Jaurlaritzaren web-orrialdea.**

### 1.3.- Hedabideak

### 1.4.- Solasaldi-lankidetzak markoak zabaltzea eta proposatzea

### 1.5.- Aurkezpena

## 2.- Zerbitzuaren barne-finkapenean sakontzea eta hobetzea:

2.1.- 2015. urtean izandako bilera-dinamika mantentzea.

2.2.- Bilera guztietan garatu beharreko gai teknikoei buruzko **barne-eztabaidari eustea eta hori indartzea.**

### 2.3.- Saje txandekin lotura hobetzea

2.3.1.- Topaketa-jardunaldia –Aholku/Sarea eta Arabako Abokatuen Elkargoa- errepikatu.

2.3.2.- Prestakuntza-prozesuak zabaldu eta eskuragarri dagoen informazio berria jakinarazi.

2.3.3.- Erakundeetako profesionalen eta desbideratze bidez izendatutako letraduen arteko **lotura areagotu.**

2.3.4.- Dokumentuak, biltzeko topagune birtuala finkatu (**Hodei** izenekoa).

## 3.- Zerbitzuko eragileei zuzendutako prestakuntzan eta birgaitzean sakontzea:

3.1.- **Atzerritartasuneko Kongresuaren** partaidetza finantzatu.

3.2.- **Datu-base juridikoan** harpidetzea atzerritartasunaren zuzenbidearen alorrean. Mantendu

### 3.3.- Proposamen espezifikoak:



- **Ikuspegi**
- **Erregistro zibila**
- **Espetxe-zuzenbideari buruzko jardunaldia**
- **Estatuko abokatuarekin jardunaldia**
- **Immigrazioarako Idazkaritza Orokorra**
- **Europar zuzenbidea**

3.4.- Aholku-Sareko kideek **Elkargoek** antolatutako **prestakuntzetara** joateko aukera aztertzea.

## **7.- ONDORIOAK**

Aholku-Sareak, 2015. urtean zehar, jorratuta duen lehenengo etaparen lekukoa hartu duela esan dezakegu eta, horrekin batera, egindako lanari eta eskainitako datuei esker, erreferente bilakatu da esparru honetan, euskal gizartearentzat.

Ilido horretan, zerbitzu honen kontsolidazioa indartu eta sendotu behar da eta horrek instituzioen aldetik konpromiso handiagoa eskatzen du.

